

# Getxo >MEETING<



## **Maiatzak 4. Getxo MEETINGen laburpena**

**Netwalking: Harreman profesionalak egitea paseoan ibili bitartean posible da, nola egin badakizu.**

Paseatzek zure sormena areagotzen du, zure burua askatzen du, zure ideiei forma ematen laguntzen dizu. Eta beste ideia batzuk baztertzen. Diskurtsoak egiten, buruari atsedena ematen. Amorrua, frustrazioa eta beldurrak murrizten ditu.

Ibiltzek aukera berrietara irekitzen laguntzen dizu, barne-botere handiagoa sentiarazten. Haize freskoa hartzen. Eta gainera kolesterola murrizten laguntzen du. Egunean ordubete jarraian ibiltzea ona da zuretzat eta zure enpresarentzat. Zer gehiago eska daiteke?

**Ekonomia-Sustapena / Promoción económica**

Getxo Elkartegia, Ogoño 1, 48930 Getxo (Bizkaia) 944660140

[getxolan@getxo.eus](mailto:getxolan@getxo.eus) • <https://www.getxo.eus/promocion-economica>

Jarrai gaitzazu: / Síguenos en:



Ba bai, gehiago eska daiteke. Gainera, ibiltzeari enpresa propioa duen pertsona talde bat gehitzen badiogu, Networking Walking-ekin ateratzen zaigu, hau da, Netwalking. Anglizismoak aparte, joan den osteguneko topaketatik ondorio baliagarri batzuk atera ditugu.

- Ekintzaileek, hazkunde-prozesuan zehar, sor daitezkeen antzeko arazoak dituzte. Elkarri entzuten badiogu, bi pertsonak izan dezakete horren onura.
- Galdetzeko artea: Galdera interesgarriak egiteko gaitasuna trebatu behar dugu. Hori jolas baten bidez egin genuen, eta horrek galderak egitera behartzen gintuen, atera behar genuen informazioa lortzeko. Baina zure hurrengo bisita komertzialerako ere lagun zaitzake.
- Ekintzailetzaren mundu bakarti honetan, elkartu beharra dago. Elkarri kontatu. Ikuspuntuak partekatu.

Luzera begira, sare profesional zabala eta diziplina anitzekoa izateak atak ireki diezazkizuke, zure kontaktu-agenda biderkatu eta agertoki berrietara eraman: bezero gehiago, beste zerbitzu batzuk, aukera gehiago.

**Ekonomia-Sustapena / Promoción económica**

Getxo Elkartegia, Ogoño 1, 48930 Getxo (Bizkaia) 944660140

[getxolan@getxo.eus](mailto:getxolan@getxo.eus) • <https://www.getxo.eus/promocion-economica>



Jarrai gaitzazu: / Síguenos en: